

Baratza gure ikastetxean

Ikastetxean baratzerik ez duzuela?

Ba baratzea eraikitzen hasi aurretik galdetegi hau betetzea lagungarri izango zaizue:

GALDETEGIA:

1. Non kokatuko dugu baratzea? (Atera argazkia)

Lur sail batean

Loreontzietan

2. Neurtu baratza jarriko den eremuaren azalera (m²):

3. Marraztu eremuaren forma (laukia, borobila, ...).

4. Noiz ematen dio eguzkiak? Goizean Eguerdian Arratsaldean, (...), beraz zein da bere orientazioa?

5. Landareak haizearengandik babesteko elementurik al du? Zer?(pareta, hesia, landaretza, ...)

6. Gure baratzea jartzeko aukeratu dugun eremua...

laua da

aldapan dago



Baratza gure ikastetxean



7. Nolakoa da gure lurra?:

Zein kolorekoa da? (marroia, beltza, ...)

Neurtu sakonera:

Ura ondo xurgatzen du edo putzututa geratzen da?

Lurra soltea da edo oso zapaldua dago?

Zizarrerik ba al dago? Bai Ez

8. Nondik hartuko dugu ura?

Iturritik

Teilatuko ura bildu eta bertatik hartuko dugu.

9. Nola ureztatuko dugu?

Ureztailuarekin

Ur tutuarekin

Ureztatze sistema automatikoarekin

10. Nola ongarrituko dugu baratzea?

Simaurrarekin. Nondik lortuko dugu? _____

Konpostarekin. Nondik lortuko dugu? _____

11. Nola antolatuko gara udaran, barazkiak jasotzeko eta baratza mantentzeko? Gurasoen elkar-
tearen edo beste norbaiten laguntza beharko dugu?

